





# Nafarroako Arartekoa, 2018



2019ko ekaina




CÁMARA DE  
COMPTOS  
DE NAVARRA  
NAFARROAKO  
KONTUEN  
GANBERA



## AURKIBIDEA

	ORRIALDEA
I. SARRERA .....	3
II. NAFARROAKO ARARTEKOAREN 2018KO EKITALDIKO URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA .....	6
II.1. Auditoretza finantzarioko iritzia .....	7
II.2. Legedia betetzeari buruzko iritzia.....	7
ERANSKINA. NAFARROAKO ARARTEKOAREN 2018KO URTEKO KONTUEN LABURPENA.....	8





## I. Sarrera

Nafarroako Arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, xedeztat duena Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoak babesturiko eskubide eta askatasunen babes-maila defendatu eta hobetzea. Haren eginkizun nagusia da herritarrak babestea Administrazioaren balizko abusu eta zabarkerien aurrean.

Urriaren 27ko 7/2010 Lege Organikoak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoa Erreformatzekoak, 18. artikuluan estatutu-mailako erakundearen kategoriara jasotzen du Nafarroako Arartekoa.

Nafarroako Parlamentuak hautatzen eta izendatzen du Nafarroako Arartekoa, eta horrek urtero Parlamentuaren en aurrean erantzuten du egindakoarengatik. Egun kargu hori betetzen duen pertsona 2007ko martxoaren 22an izendatua izan zen, sei urterako, eta gaur egun behin-behinekoz betetzen ditu bere eginkizunak. Bere eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren aholkulariak eta konfiantzazko langileak askatasunez izendatzen eta kentzen ditu kargutik.

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2019rako daukan jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako Arartekoaren 2018ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua, ondare garbiko aldaketen egoera-orria, eskudiru-fluxuen egoera-orria eta oroitidazkia.

Fiskalizazio finantzarioaren helburua da iritzia ematea honako honi buruz: ea Nafarroako Arartekoaren urteko kontuek alderdi esanguratsu guztietan irudi zehatza erakusten duten ondareari, aurrekontuaren likidazioari eta 2018ko abenduaren 31ko finantza-egoerari buruz, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion emaitza ekonomiko eta ondarezkoari buruz ere, finantza-informazio publikoari dagokionez aplikatzekoa den arau-esparruari jarraituz eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideei jarraituz.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, zuzenbidea betetzeari buruzko fiskalizazio bat planifikatu eta exekutatu dugu, honako honi buruzko iritzia eman ahal izateko: ea Nafarroako Arartekoak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2018ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.





Honako hauek osatzen dute, funtsean, Nafarroako Arartekoari 2018an aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea.
- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2005eko azaroaren 21eko Erabakiaz onetsia.
- 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, eta 13/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 20/2017 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2018rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, apirilaren 13ko EHA/1037/2010 Aginduaren bidez onetsia.

Nafarroako Arartekoa, kontabilitaterako, kontu-hartzailetzarako, gastubaimenerako, kontrataziorako eta ondasun eta eskubideen eskuraketarako, Nafarroako Parlamentuak daukan araubide beraren mendean dago. Haren aurrekontu-proiektua Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartuta dago, eta haren kontuak Nafarroako kontu orokorren parte dira.

2018ko ekitaldiaren datu nabarmen gisa, honako hauek aipa daitezke:

- Aitortutako betebeharrak 701.682 euro egin dute, eta betetze-maila % 93koa izan da. 2017an, betebeharrak 658.720 eurokoak izan ziren.
- Kontseiluak 2018an gastatutako 100 euroko bakoitzaren erabilera eta finantzabidea honako hauek izan dira:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzaketa-iturria	Zenbatekoa
Langileak	73	Transferentzien ondoriozko diru-sarrerak	100
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	22		
Transferentzia arruntak	4		
Inbertsioak	1		
	100		100

- Aitortutako eskubideek 754.949 euro egin dute, eta betetze-maila % 100ekoa izan da. Diru-sarrera horietatik gehienak, 753.924 euro, Nafarroako Gobernuarengandik jasotako transferentzietatik heldu dira; horietatik, 736.364 euro funtzionamendu-gastuak finantzatzera bideratzen diren transferentzia





arruntak dira, eta 17.560 euro, berriz, inbertsio-gastuetarako kapital-transferentziak.

• Nafarroako Arartekoak, araudi indardunari jarraituz, 53.267 euro itzuliko dizkio Foru Ogasunari.

Diru-sarrerak, guztira	754.949
Gastuak, guztira	701.682
Aurrekontuko superabita	53.267
<b>Foru Ogasunari itzuli beharrekoa, guztira</b>	<b>53.267</b>

• Hurrengo koadroan agertzen dira Nafarroako Arartekoaren 2018rako plantilla organikoa, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2018ko ekainaren 11n onetsia, bai eta abenduaren 31ko langileria ere:

Langile mota	Plantilla organikoa	Langileak, abenduaren 31n
Behin-behinekoak	5	5
Funtzionarioak	3	2
Administrazio-kontratupekoak	-	1
<b>Guztira</b>	<b>8</b>	<b>8</b>

• Nafarroako Arartekoaren urteko txostenaren arabera, honako hauek dira 2018an zehar egindako jarduerari buruzko datuak:

- 2.645 jarduketa egin dira guztira; 2017an baino ehuneko 10 gehiago.
- 2018an 1.052 kexa aurkeztu dira, eta guztira 1.193 kexa kudeatu dira. Halaber, 1.398 kontsultari erantzun zaie.
- Nafarroako Arartekoak 401 ebazpen jaulki ditu, eta haietan biltzen dira 210 gomendio, 167 iradokizun eta legezko betebeharren 103 gogorarazpen.

Txostenak bi epigrafe ditu, sarrera hau barne. Bigarrenak gure iritzi finantzarioa eta legezketasunaren betetzeari buruzkoa azaltzen du, Arartekoaren 2018ko ekitaldiko urteko kontuei dagokienez. Txostenari eranskin bat gehitu diogu, urteko kontu horien laburpen batekin.

Landa-lana 2019ko apirilean egin du lantalde batek, zeina auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatua baitzegoen. Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzaren ere izan dute.

Jarduketa honen emaitzak Nafarroako Arartekoari azaldu zitzaizkion, kasua bazen egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Jarritako epea iraganda, ez zen alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Arartekoaren langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.





## **II. Nafarroako Arartekoaren 2018ko ekitaldiko urteko kontuei buruzko iritzia**

Nafarroako Arartekoaren 2018ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditugu. Haren kontabilitateko egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen eranskinean.

### *Nafarroako Arartekoaren erantzukizuna*

Nafarroako Arartekoa da urteko kontuak aurkeztu eta Nafarroako Parlamentuari igortzeko ardura duena. Urteko kontu horiek, Arartekoaren kontuhartzaileak aurrez egindakoak, irudi zehatza azalduko dute ondareari, finantza-egoerari, emaitzei eta aurrekontu-betetzeari dagokienez, aplikatzekoak diren finantza-informazioari buruzko araei jarraituz. Halaber gainditu beharko dituzte iruzur edo errakuntzaren ondoriozko oker materialik gabekoak izan daitezzen beharrezkotzat jotzen duten barne kontrola.

Urteko kontuak aurkezteko erantzukizunaz gainera, Nafarroako Arartekoak bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezarri beharko ditu.

### *Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna*

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea urteko kontuei buruz eta egin diren eragiketen legezotasunari buruz, gure fiskalizazioan oinarrituta.

Horretarako, fiskalizazio hori egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, ISSAI-ESen ezarritakoak, eta batez ere ISSAI-ES 200 delakoa aplikatu dugu, fiskalizazio finantzarioei buruzkoa, bai eta ISSAI-ES 400 ere, betetzearen gaineko fiskalizazioei buruzkoa. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, eta, halaber, lanaren plangintza eta exekuzioa halako moduan egin dezagula non halako segurtasun bat lortuko baitugu urteko kontuak oker materialik gabekoak izateaz, eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa alderdi adierazgarri guztietan arau indardunen arabekoak izateaz.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak ekitaldi fiskalizatuan zehar betetzeari buruz ere.

Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabekoak dira, horren barne dela arriskuaren balorazioa, hala iruzur edo errakuntzaren ondorioz kontu orokorrek akats materialak izatearen arriskuarena nola lege-urraketa muntadu-





nak egotearen arriskuarena. Arriskuari buruzko balorazio horiek egitean, auditoreak beharrezkoa den barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak urteko kontuak egitekoa eta legeak betetzen dituela bermatzekoa—, horrela diseinatze aldera inguruabarren arabera egoki diren auditoretza-prozedurak, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

Azterketa honek barne biltzen du, era berean, ebaluatzea aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta urteko kontuen aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du finantza-auditoretzari eta legeen betetzeari buruzko gure iritzia funtsatzeko.

## II.1. Auditoretza finantzarioko iritzia

Gure iritziz, 2018ko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten dute Nafarroako Arartekoaren 2018ko abenduaren 31ko ondareaz eta finantza-egoeraz, bai eta data horretan amaitutako urtealdian izan dituen emaitza ekonomiko eta aurrekontukoiei dagokienez ere, betiere informazio finantzario publikoa dela-eta aplikatzekoa den araudiari jarraikiz eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta irizpideen arabera.

## II.2 Legedia betetzeari buruzko iritzia

Gure iritziz, Nafarroako Arartekoaren 2018ko ekitaldiari buruzko urteko kontuetan jasotako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore M<sup>a</sup> Carmen Azcona Díez de Ulzurrun andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2019ko ekainaren 21ean

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga



**ERANSKINA. Nafarroako Arartekoaren 2018ko urteko kontuen laburpena****1. 2018ko aurrekontuaren likidazioa****Diru-sarrerak kapituluz kapitulua**

Kapitulua	Hasierako aurreikuspenak	Behin betiko aurreikuspenak	Eskubide aitortuak	Betetzearen ehunekoa	Kobrantzak	Kobrانتzen ehunekoa
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	100	100	385	385	385	100
4. Transferentzia arruntak	736.364	736.364	736.364	100	736.364	100
5. Ondareko diru-sarrerak	100	100	0	-	0	100
7. Kapital-transferentziak	17.560	17.560	17.560	100	17.560	100
8. Aktibo finantzarioak	640	640	640	100	640	100
9. Pasibo finantzarioak	100	100	0	-	0	-
<b>Guztira</b>	<b>754.864</b>	<b>754.864</b>	<b>754.949</b>	<b>100</b>	<b>754.949</b>	<b>100</b>

**Gastuak, kapituluz kapitulua**

Kapitulua	Hasierako kredituak	Behin betiko kredituak	Betebeharrak aitortuak	Betetzearen ehunekoa	Ordainketak	Ordainketen ehunekoa
1. Langile-gastuak	523.864	523.864	512.120	98	512.120	100
2. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	178.600	178.600	151.200	85	148.942	99
4. Transferentzia arruntak	34.100	34.100	29.805	87	29.805	100
6. Inbertsio errealak	18.000	18.000	8.557	48	6.381	75
8. Aktibo finantzarioak	200	200	0	-	0	-
9. Pasibo finantzarioak	100	100	0	-	0	-
<b>Guztira</b>	<b>754.864</b>	<b>754.864</b>	<b>701.682</b>	<b>93</b>	<b>697.249</b>	<b>99</b>







## 2. 2018ko aurrekontu-emaiza

Kontzeptuak	2018				2017			
	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak	Doikuntzak	Aurrekontu-emaiza	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak	Doikuntzak	Aurrekontu-emaiza
a. Eragiketa arruntak	736.749	693.125		43.624	737.374	652.952		84.422
b. Kapital-eragiketak	17.560	8.556		9.004	16.664	5.768		10.896
c. Merkataritza-eragiketak	0	0		0	0	0		0
1. Eragiketa ez-finantzarioak, guztira (a+b+c)	754.309	701.682		52.627	754.038	658.720		95.318
d. Aktibo finantzarioak	640	0		640	1.536	0		1.536
e. Pasibo finantzarioak	0	0		0	0	0		0
2. Finantza-eragiketak, guztira (d+e)	640	0		640	1.536	0		1.536
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaiza (I=1+2)	754.949	701.682		53.267	755.574	658.720		96.854
Doikuntzak								
3. Kreditu gastatuak, atxiki gabeko diruzaintzako gerakinarekin finantzatuak			0				0	
4. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze negatiboak			0				0	
5. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze positiboak			0				0	
II. Doikuntzak, guztira (II=3+4+5)			0				0	
<b>Aurrekontu-emaiza doitua (I+II)</b>				<b>53.267</b>				<b>96.854</b>

## 3. Diruzaintzako gerakina 2018ko abenduaren 31n.

Osagaiak	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
1. (+) Funtz likidoak	95.073	141.205
2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	0	0
(+ Ekitaldiko aurrekontutik	0	0
(+ Aurrekontu itxietatik	0	0
(+ Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	0	0
(+ Merkataritzako eragiketetatik	0	0
3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	95.073	141.205
(+ Ekitaldiko aurrekontutik	4.433	7.194
(+ Aurrekontu itxietatik	0	0
(+ Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	90.640	134.011
(+ Merkataritzako eragiketetatik	0	0
4. (+) Aplikatzeko dauden partidak	0	0
(+ Eginiko kobrantzak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	0	0
(+ Eginiko ordaintzak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	0	0
I. Diruzaintzako gerakina, guztira (1+2-3+4)	0	0
II. Gehiegizko finantzaketa atxikia	0	0
III. Kobratzen zailak diren saldoak	0	0
IV. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakina = (I-II-III)	0	0





#### 4. 2018ko abenduaren 31ko balantzea

Aktiboa	2018	2017
<b>A) Aktibo ez-arrunta</b>	<b>195.419</b>	<b>204.931</b>
<b>I. Ibilgetu ukiezia</b>	<b>7.360</b>	<b>15.488</b>
3. Aplikazio informatikoak	7.360	15.488
<b>II. Ibilgetu materiala</b>	<b>188.059</b>	<b>189.443</b>
2. Eraikinak	111.417	112.346
4. Ondare historikoko ondasunak	41.509	41.509
5. Bestelako ibilgetu materiala	35.133	35.588
Makineria, instalazioak eta tresnak	5	949
Altzariak eta tresneria	620	2.427
Informazio-prozesuetako ekipoa	8.987	7.803
Bestelako ibilgetu materiala	25.521	24.409
<b>B) Aktibo arrunta</b>	<b>95.073</b>	<b>141.846</b>
<b>III. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
2. Kobratzeko dauden beste kontu batzuk	0	0
3. Administrazio publikoak	0	0
<b>V. Epe laburreko finantza-inbertsioak</b>	<b>0</b>	<b>640</b>
2. Kredituak eta balore zor-adierazleak	0	640
<b>VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido balio-kideak</b>	<b>95.073</b>	<b>141.206</b>
2. Diruzaintza	95.073	141.206
Kutxa	558	183
Bankuak eta kreditu-erakundeak	94.515	141.023
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>290.492</b>	<b>346.777</b>

Ondare garbia eta pasiboa	2018	2017
<b>A) Ondare garbia</b>	<b>195.419</b>	<b>205.571</b>
<b>I. Jarritako ondarea</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>II. Sortutako ondarea</b>	<b>195.419</b>	<b>205.571</b>
1. Aurreko ekitaldietako emaitzak	195.419	205.571
Ondarea	200.881	211.033
Lagapenean emandako ondarea	-5.462	-5.462
<b>C) Pasibo arrunta</b>	<b>95.073</b>	<b>141.206</b>
<b>IV. Hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk</b>	<b>95.073</b>	<b>141.206</b>
1. Kudeaketa-eragiketengatiko hartzekodunak	4.433	7.194
3. Administrazio publikoak	90.640	134.012
Ogasun Publikoa, PFEZagatik hartzekodun	25.852	25.388
Ogasun Publikoa, eskubide pasiboengatik hartzekodun	2.173	2.161
Ogasun Publikoa, kreditu-itzulketak dela eta	53.267	96.854
Gizarte Segurantzaren hartzekodun	9.348	9.609
<b>Ondare garbia eta pasiboa, guztira</b>	<b>290.492</b>	<b>346.777</b>





## 5. 2018ko ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua

	2018	2017
2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	753.924	753.544
a) Ekitaldikoak	753.924	753.544
a.2) Transferentziak	753.924	753.544
Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentziak	17.560	16.664
Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak	736.364	736.880
7. Kudeaketa arrunteko beste diru-sarrera batzuk	0	0
A) Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak, guztira (1+2+3+4+5+6+7)	753.924	753.544
8. Langile-gastuak	-512.120	-485.273
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	-419.788	-398.819
Arartekoaren erakundeko soldatak eta lansariak	-66.910	-65.189
Behin-behineko langileen soldatak eta lansariak	-241.516	-227.208
Funtzionarioen soldatak eta lansariak	-80.025	-76.688
Kontratupeko langileen soldatak eta lansariak	-31.337	-29.735
b) Gizarte-zamak	-92.333	-86.454
Enpresaren kargura dagoen Gizarte Segurantza	-92.333	-86.454
9. Egindako transferentziak eta emandako diru-laguntzak	-29.804	-31.583
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	-151.200	-136.096
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	-151.200	-136.096
12. Ibilgetuaren amortizazioa	-17.929	-54.603
B). Kudeaketa arrunteko gastuak, guztira (8+9+10+11+12)	-711.054	-707.555
<b>I. Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A+B)</b>	<b>42.870</b>	<b>45.989</b>
13. Ibilgetu ez-finantzarioaren eta salgai dauden aktiboaren balio-galera eta haien besterentzearen emaitzak	-140	-139
a) Balio-galera	0	0
b) Bajak eta besterentzeak	-140	-139
14. Arruntak ez diren beste partida batzuk	385	480
a) Diru-sarrerak	385	480
<b>II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza (I+13+14)</b>	<b>43.115</b>	<b>46.331</b>
15. Diru-sarrera finantzarioak	0	14
b) Balio negoziagarrienak eta aktibo ibilgetuko kredituenak	0	14
B 2) Bestelakoak	0	14
<b>III. Eragiketa finantzarioen emaitza (15+16+17+18+19+20)</b>	<b>0</b>	<b>14</b>
<b>IV. Ekitaldiko emaitza garbia (aurrezkia edo desaurrezkia) (II+III)</b>	<b>43.115</b>	<b>46.345</b>



**6. 2018ko ondare garbian izandako aldaketan egoera-orria**

	Jarritako ondarea	Sortutako ondarea	Guztira
Ondare garbia 2017ko ekitaldiaren bukaeran	0	205.571	205.571
Kontabilitate-irizpideetan izandako aldaketengatik eta zuzenketingatik egindako doikuntzak	0	0	0
2017ko ekitaldiaren hasierako ondare garbi doitu	0	205.571	205.571
2018ko ekitaldian ondare garbiak izandako aldaketak	0	-10.152	-10.152
Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak	0	43.115	43.115
Jabea den entitatearekin egindako eragiketak	0	0	0
Ondare garbian izandako beste alde batzuk	0	-53.267	-53.267
<b>Ondare garbia 2018ko ekitaldiaren bukaeran</b>	<b>0</b>	<b>195.419</b>	<b>195.419</b>

**7. 2018ko eskudiru-fluxuen egoera-orria**

	2018	2017
<b>I. KUDEAKETA-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK</b>		
<b>A) Kobrantzak</b>	<b>754.309</b>	<b>754.038</b>
2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	753.924	753.544
5. Kobratutako interesak eta dibidenduak	0	14
6. Beste kobrantza batzuk	385	480
<b>B) Ordainketak:</b>	<b>794.699</b>	<b>735.289</b>
7. Langile-gastuak	512.120	485.273
8. Egindako transferentziak eta emandako diru-laguntzak	29.805	32.495
10. Kudeaketako beste gastu batzuk	156.136	132.522
13. Beste ordainketa batzuk	96.638	84.999
<b>Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxu garbiak (+A-B)</b>	<b>-40.390</b>	<b>18.749</b>
<b>II. INBERTSIO-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK</b>		
<b>C) Kobrantzak:</b>	<b>640</b>	<b>1.536</b>
3. Inbertsio-jardueretako beste kobrantza batzuk	640	1.536
<b>D) Ordainketak:</b>	<b>6.382</b>	<b>5.768</b>
4. Inbertsio errealean erosketa	6.382	5.768
<b>Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+C-D)</b>	<b>-5.742</b>	<b>-4.232</b>
<b>VI. ESKUDIRUAREN ETA HAREN BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOEN HAN-DITZE/GUTXITZE GARBIA (I+II+III+IV+V)</b>	<b>-46.132</b>	<b>14.517</b>
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren hasieran	141.206	126.688
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren bukaeran	95.073	141.206

